

FRIASKO PANDILLA

A,a,a,

Goazen bertso-kantura,
gure poz ta estura
ekarriaz burura.

E,e,e,

Bost erroko errape
bat ebagita ere
oraindikan lau sobre.

I,i,i,

Frontoia erakutsi
ta jokutzen ez utzi,
ez dok malizi gutxi!

O,o,o,

Osaba edo tio
edozeinegaz ez pio,
bestelan gauon, Pio!

U,u,u,

Ez santa ta ez santu
jokua beti joku
hor amorratzen jaku.

A,a,a,

Ezker ta eskumara
gehienok joango gara
"erregularretara"

E,e,e,

Nor dogun teniente
igarri derrepente:
ule txortia tente.

I,i,i

Jan-edanda ijiji,
eta gero pitxitxi
lo goxoan ixixi.

O,o,o,

Ez motel, ez kaxkajo,
ibili gara majo
euliak ere zapla jo.

U,u,u,

Hau ezin lei zabaldu
baina poltzia galdu
bestelan nok makaldu?

A,a,a,

Hau bai dala demasa
azkenian, Tomasa,
jan behar kalabaza.

E,e,e,

Jan-edan bete-bete
dan-dana merke-merke
holan bizi leiteke

I,i,i,

Ez txiki, ez nagusi
inor ere ez itsusi
gu lango talde gixi.

O,o,o,

Etxe ta errekondu
hobaik ez da egongo
gu behintzat oso ondo.

U,u,u,

Amaitu da tururu
hemendik urte buru
hemen gara seguru.

A. Martzel